



gorizolzarrien ustez, Orkestrako José Luis Cubelok eta Iñaki Peñak, Indianako Unibertsitateko David Audretschek, edo INSEADeko Soumitra Duttak esaterako, azpimarratu zuten ekintzaile lana funtsezkoa dela ekonomia baten barruko jakintza zabaltzeko. Ekintzaile lanaren joera gero eta globalagoa da, teknologiari lotua, eta erritmo bizia du. Ekintzaile lanak etorkizunean aurrera egin dezan, adituek azpimarratzen dute beharrezkoa dela ekintzaile gazteak enpresa handi eta sendoeekin harremanetan jartzea. Horrez gain, ondorioztatu zuten «berrikuntzaren, ekimen berrien sorreraren, ekonomian ekoberrikuntza sartzearen eta politika adimentsu eta integratuak diseinatzearen aldeko apustua hil ala bizikoa dela».

José Ignacio Goirigolzarri, Soumitra Dutta, José Luis Curbelo, David Audretsch eta Iñaki Peña

Politika integratuak aplikatzea, ekintzailetza berritzailea eta enpresak eta pertsonak irekiak izatea funtsezkoak dira Euskal Herriko ongizatea mantentzeko

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak 250 ekonomia arloko sustatzaile eta herritar bildu zituen azaroaren 23an, gaur eguneko ekonomiaren egoeraz eta etorkizuneko lehiakortasuneko erronkei buruz adituekin hitz egiteko, krisi ekonomikoaren ondoren sortu den nazioarteko egoera berriaren aurrean.

Atera ziren ondorio nagusien artean, zera azpimarratu behar da: berrikuntza lehiakortasuneko estrategiaren eragile nagusi gisa ulertzen dela herrialde aurreratuetan. Gaur egun, Euskal Herriak Estatuko gainerako eskualdeek baino ekonomia egoera hobea badu ere, Juan Manuel Eguigarayk aipatu zuen bezala, «enpresen tamaina orokorra eta trakzio lana egiten duten enpresen eskasia dira lehiarako dituen arazoetako batzuk».

Euskal Herriak lehiakortasunean aurrera pausuak egiteko, egokitu beharra dauka, enpresa proiektuen kopurua bizkor baino bizkorrago has dadin, José Ignacio

Beste aditu batzuek, Orkestrako Jon Azúak edo James Wilsonen, edo Detrotoko Merkataritza Ganberako Sandy K. Baruahek, azpimarratu zuten eragile sozio-ekonomikoen konfigurazio eta harremanetan eboluzioa dagoela sistema irekiagoetara, ez hain formaletara eta konplexuagoetara, eskala geografiko desberdinetan artikulatuta egon beharrak eraginda. Ingurumen egoera eta populazioa zahartzea dira gaur egungo lehiako politikan zuzenean eragiten duten gizarte dimentsioak. Bi faktore horiek gakoak izango dira lehiakortasuneko etorkizuneko politiketan.